

ttipi ttapa

2002ko abuztuaren 1a • XXII. urtea



Patxiku Irisarri
EHNEko idazkari

03

Etxalarko nekazari hau izendatu berri dute EHNEko Idazkari Nagusi. Belar multzotik paper multzora pasatzea gogor eginen zaiola dio. Halere ez zaio gogorik falta.



Xanti Uterga
profesional berria

24

San Fermin egunean egin zuen debuta erremonte profesionalen 17 urteko aurrelari doneztebarrak. Herriko seigarren erremontelari profesionala da.

04

Ibilbide goxoak Leurtzako urtegien inguruan



MUEBLES A METS



Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak



**UZTAILAREN 20TIK
IRAILAREN 14RA LARUNBAT
ARRATSALDETAN ITXITA**

4000 m² erakusketa

Sarrera
BERATik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

ME K

**ERAKUSKETA
ALDAKETA**

**BEHERAPEN
HANDIAK**

METS

DESKANTSUAREN HIILABETEA

**ERAKUSKETAN
DAGOENA
BUKATU ARTE
ikusita eta
eraman!!!**

2x1

**koltxoi eta
somieretan**



CLIP - CLAP 211 €



CLIP - CLAP 240 €



750 €



750 €

ttipi ttapa

2002ko abuztuaren 1a • XXII. urtea



Patxiku Irisarri
EHNEko idazkari

03

Etxalarko nekazari hau izendatu berri dute EHNEko Idazkari Nagusi. Belar multzotik paper multzora pasatzea gogor eginen zaiola dio. Halere ez zaio gogorik falta.



Xanti Uterga
profesional berria

24

San Fermin egunean egin zuen debuta erremonte profesionalen 17 urteko aurrelari doneztebarrak. Herriko seigarren erremontelari profesionala da.

04

Ibilbide goxoak Leurtzako urtegien inguruan




MUEBLES A METS



Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak

Sarrera
BERATik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



UZTAILAREN 20TIK
IRAILAREN 14RA LARUNBAT
ARRATSALDETAN ITXITA

4000 m² erakusketa

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

ME K

**ERAKUSKETA
ALDAKETA**

**BEHERAPEN
HANDIAK**

METS

DESKANTSUAREN HIILABETEA

**ERAKUSKETAN
DAGOENA
BUKATU ARTE
ikusita eta
eraman!!!**



CLIP - CLAP 211 €



CLIP - CLAP 240 €



750 €



750 €

2x1
**koltxoi eta
somieretan**

DATUAK...

- Etxalarako Lakateneko bordan sortua duela 32 urte.
- Lanbide heziketa ikasketak egin zituen Iruduan, nekazaritzara zuzendua.
- Martikorekin lau hilabetez ahateak nola bozkatu ikasten ibili ondotik, ahate granja jarri zuen bere kontura.
- 1990ean sartu zen Nafarroako EHNEan, 1998an Nafarroako kontseiluan eta 2002ko ekainaren 28an EHNEko Idazkari Nagusi aukeratu zuten.



Patxiku IRISARRI EHNEko idazkari nagusia

Joseba OLAGARAI

«Nekazaritza sektorea gaztetzea da idazkari gisara dudan erronka»

Joseba OLAGARAI

Noiz eta nola sartu zinen EHNE sindikatuan? Nola sortu zitzaizun Idazkari Nagusi izateko kandidatura? Aita lehenagotik sartua zen eta berekin batera bileretara joaten hasi nintzen. Sindikatu baten inguruan egoteko beharra ikusten nuen, sortzen ahal diren arazo eta gatazkak horrela konpontzea errazagoa delako, denak elkarrekin lan eginez, banaka arituz baino. Ahate granja zabaldu eta segituan izan zen hori. Idazkari Nagusi izateari dagokionez, kongresuaren prozesua hasi zenean, probintzia bakoitzak kandidaturak aurkezteko aukera zuen. Nafarroak zehazki aldaketa bat nahi eta behar zuen eta konfederazioan ahalik eta jende gazteena sartzea beharrezkoa zen. Hori niri proposatu zidaten eta nik onartu egin nuen. **Zein da orain EHNE sindikatuan duzun betebeharra? Zein izanen da zure lana?**

Nik Idazkari Nagusi karguan, gehienbat kanpora begirako harreman instituzional eta politikoak burutuko ditut. Horretaz gain bozeramaile lanaz

«Belar multzotik paper multzora pasatzea aldaketa handia da. Ez dfit beldurrik ematen, baina errespetua bai»

ere ni arduratuko naiz. Barnean ere zenbait eginkizun izanen ditut; Barne-antolaketa koordinatzaile bat dago baina nik lan horretan ere lagunduko diot.

Nola ikusten duzu egungo baserriarren egoera? Norantza joko du?

Egoera txarra da, baina Idazkari Nagusi modura erran behar dut erronka gisa hartu behar dela gure sektore hau gaztetzea. Erronka eta handia gainera. Izan ere, nekazaritza esparrua gaztetzea ez da gauza erraza baina guk hori lortu nahi dugu eta gainera horrekin batera lehenengo sektoreko dinamika hori berpiztea da gure helburu nagusia.

EHNEk zenbateko garrantzia eta eragina du baserriaren esparruan? Zenbakietan ez dakit, hauteskundeak ez direlako eginak ez Araba, ez

Bizkaia eta ez Gipuzkoan. Nafarroa osoan, %33ko eragina du baina zonalde batzuetan, inguru honetan batez ere, ia %100era iristen da. Beritze hiru probintzietan erran dudana bezala ez dago datu zehatzik baina nire ustez, erabateko eragina du.

Baserriarra izatek EHNEko Idazkari Nagusi izatera. Ez da aldaketa handia hori?

Bai, hagitz handia. Belar multzotik paper multzora pasatzea aldaketa handia da. Batez ere hasieran, han diren txosten guziak irakurri behar ko baitituz. Jende aunitzek galdetzen dit ea ez al didan beldurrik ematen nik normalean ezetz erran ohi dut baina erran behar dut errespetua ematen didala eta handia gainera. Ni konsziente naiz zama handia dela baina bizkarrean ezin badut errestaka eramane behar ko dut. Hala ere, momentuz aitzinetik ditudan lau urteetan nere lana ahalik eta hobekien betetzen saiatuko naiz eta EHNEk behar duen berrikuntza horretan uste dut zeresan handia izan dezakedala. Dena den, eguneroko lan eta jardunarekin ikusiko behar ko da hori.



Argazkiak: Aitor AROTZENA

Ezker-eskuin, aurtan Leurtzan izanen diren bi zaindaria, Xabier Matxiñena urroztarra eta Beintza-Labaiengo Yolanda Urrotz; Mari Jose Larraioz Urrozko alkatesa eta Mikel Albisu, Leurtzako Urtegiak aisiako natur eremuaren koordinatzailea.

Leurtzako Urtegiak Natur eta Aisiarako eremuari indar berria eman nahi zala uda honetatik aitzinera. Horretarako uztailaren 18an egin zen aurkezpen ekitaldian, zenbait egitasmo azaldu zituzten urtegien inguruan. Uda honetan zaindari lana eginen duten Xabier Matxiñena urroztarra eta Beintza Labaiengo Yolanda Urroz izan gonituen solaskide, baita Mari Jose Larraioz Urrozko alkatesa eta Mikel Albisu, Leurtzako urtegiak aisiako natur eremu honen koordinatzailea. Bertzeak bertze, Nafarroa osoko natur eremuetatik edo turismo parkeetatik etorritako zaindari eta teknikariek inibaldia egin zuten, Leurtzako urtegien inguruan prestatu diren bi ibilbideetako bat, hain zuzen.

LEURTZAKO URTEGIAK AISIARAKO NATUR EREMUAN

Baztan-Bidasoako «hondartzaren» inguruan ibilbideak prestatu dituzte

Aitor AROTZENA

Duela ia ehun urte egin ziren Leurtzako urtegiak, ura argindar bihurtzeko. Urtean jende guttik ezagutzen zuten inguru eder hori, bertara ailegatzeko pista kaxkar bat bertzerik ez baitzen. Baina 1986an, Beintza-Labaiengo eta Urrozko Udalek akordioa sinatu zuten Nafarroako Gobernua-rekin, inguru hori Natur Ereku izendatzeko. Orduan, Nafarroako Gobernua instalazio batzuk prestatu zituen, komunak, erretegiak, mahai batzuk, jendearen atsedenerako. 1996an berriz, inguru hau Aisiarako Natur Ere-

mu izendatu zuten. Gaur egun Natur Ereku honen koordinatzaile den Mikel Albisuk aipatu digunez, «aurten saiatzen ari gara planteamendu berri batzuk sartzen. Orain arte, hemen aritu diren guardek egin duten lan gehiena izan da zainketa eta hemengo arautegia betearaztea. Hemendik aitzinera bertze ikuspegi bat eman nahi diogu eta ez dute bakarrik arautegia betearazi beharko, baita jendeari informazioa eman ere».

Horretarako bi herriek akordioa egin dute Nafarroako Gobernua-rekin. Horren berri eman digu Mari Jose La-

arraioz, Urrozko alkatesak. «Aurtan zerbait berezia egin nahi izan da. Beti azpiegiturak moldatzeko lanak egin dira eta aurtan seinalizazio lanak egiten dira, batez ere, kanpotik datorren jendeak urtegiara errex ailegatzeko; etxola egin zaie zaindariari, orain arte ez baitzuten deus han egoteko. Urtegi inguruko bi bidaxkak ere moldatu dira eta horren informazioa emateko argitalpen bat egin da, hemen berean eta turismo bulegoetan izanen dena. Zaborrontzi berriak ere egiten dira eta erretegi bat edo bertze ere bai, egun batzuetan murrizt x-

mar gelditzen bailira orain daudenak. Hori dena Cedema-Garalur eta Terra enpresarekin prestatutako proiektuan sartutako lanak dira».

BEINTZA-LABAIEN ETA URROZKO ZAINDARI BANA UDA OSOAN

Orain arte guarda bakarria izaten zen, urte batean Beintza-Labaiengoa eta bertzean Urrozkoa txandaka. Aurten, txandaz Beintza-Labaiengoa izan behar zuen, eta Aste Saindutik ari da Yolanda Urroz, baina uztailaren 13tik aitzinera Xabier Makiñena urroztarra ere hasia da. Hau 30 egunez ariko da, momentuz horretarako dirulaguntza baitago bakarrik. Arauak betetzen direla kontrolatzeaz gain, garbiketaz ere arduratzen dira, inguruan zer ikusten ahal duten eta nondik ibiltzen ahal diren azaltzen diete bisitariari. Yolanda aipatu dizkigun arauak ez dira betetzeko batere zailak, eta horrelako leku eder batetaz guziok gozatu ahal izateko oinarri-oinarizkoak dira: «*Sua bere lekuan egin behar da, horretarako lekuak prest baitaude, zakurrak lotuak egon behar dute, inguru honetan aziendak baitaude, motoak eta autoak ezin dute sarreran dagoen katetik pasatu eta akanpada galerazia dago. Eta zaborra bere lekuetara botatzea, noski*».

Heldu den urtetik aitzinera, Aste Saindutik hasita bi zaindarekin aritu nahi dute, horretarako dirulaguntza ailegatzen bada, bederen. Mikel Albisuren ustez, «*hemengo zaindariak informazioa emateko gehiago prestatu behar ditugu, bisitak antolatzeke eta ordutegia eta egunak zabaldu behar dira. Lehen ezin zitzaion zaindariari inplikazio gehiagi eskatu, azkenean bazekien hurrengo urtean bera ez zela lanean arituko. Orain, aukera hori bada*».

BI IBILBIDE AUKERAN



Leurtzako urtegiaren inguruko informazioa zabalteko asmo horren barreretan, folieto bat argitaratu dute aurten, urtegiaren ezaugarrien berri emanez eta bere inguruan egiten ahal diren bi ibilaldiak buruzko zehaztasunak agertuz. Eskualdeko informazio bulego eta alojamenduetan izanen da, baita Malekrekako ostatu batzuetan ere. Beintza-Labaiengo ebolan ere bai, noski.

Bi bidexka prestatu, bat urtegiaren inguruan doana, bidexka interpretatiboa, aski errega egiteko, eta bertze bat mendiko ingurutik. Irudian ageri den lehendabiziko ibilbide hori harizti eta pagadietan barrena egiten



Bi urtegiaren inguruan egiten den ibilaldiak, laburra izanagatik, intereseko hainbat leku ditu.

da, bi herrien arteko mugarrak edota ikatzplaza ikusten ahal da, baita zurustiapenera zuzendutako pagadien eta berez

utzitako pagadien arteko ezberdintasunak. Mendizaleei zuzendua dago bigarren ibilaldia, 9 kilometrokoa.



Mikel ALBISU Leurtzako urtegiaren koordinatzailea

“Leku eder honetaz gustora gozatu ahal izateko esfortzu bat egin behar dugu”

Bertako jendeak ulertzen al ditu Leurtzako urtegia zaintzeko neurriak hartu behar direla?

Urte osoan Leurtzan gure gisara ibiltzen gara, zakurra-ekin edo motoarekin, baina leku hau zaindu nahi badugu, urte sasoi jakin batzuetan bederen eikarbizitza arau batzuk betetzera ohitu behar dugu. Zakurra lotua ekarri behar du-

gu, baina ez da kapritxo batenagatik, hemen bada azienda, badira nekazariak eta haiak hala eskatu dute. Bertze bisitariarekin eikarbizitzeko ere nahitaezkoa da. Motoekin gauza bera. Sarrerako katea bakarrik nekazariak irekitzen dute, baina gainerakoentzat ez da libre. Azken finean leku hau denak disfrutatzeke da, baina lasai eta gustora. Denon

artean zainduko dugu, baina esfortzu tiki hori eginez. Lekuak baditu bere aukerak, oso berezia da bisitatzeke eta nik uste dut hortik joan behar dugula. Ingurumen Departamendua zerbait laguntzeke prest dago, baina gure aldetik erakutsi behar diogu hemen badirela lekua garatzeko ideia batzuk eta sasoi burutzean bertze batzuk aterako direla.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Franko Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa (+34) 948 63 11 88
Faxa (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apeztebrea.
Kudeatzailea: Joxemansuel Ingoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amalia Gola.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Gofí.
Berriemalleak: Mikel Itarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Salazar, Konbi Klaber, Peio Zestau, Iban Ibañi, Pabli Iriarte, Jalone Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Iñitza eta Eneko, Nerea Aitzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeloreña, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Gofí.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontumitzaleen Antolaketa...
Inprimategia: Gortu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Golzueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Nere herria ez dela nere herria diote

Harridura eta tristurakin hartu dut Nafar Gobernutik igorri dakuten berria: gure etxeak eta eremuak ez dira Zugarramurdikoak. Ni ez naiz legetan aditua, eta pentsatzen dut Udaletxeek beren arazoak eta motiboak izanen dituztela, baina nik ikusten dutena arras ximplea da. Hau xe da:

-Nere etxeak "Ixtilarteko-borda" du izena, beraz, Zugarramurdiko Ixtilarteko duen borda.

-Nere semea Zugarramurdiko eskolara gaten da.

-Eritzen bagara, Zugarramurdiko mediku-kontsultara gaten gara.

-Nere basurak Zugarramurdiko herriak bitzen ditu.

-Zugarramurdik konpondu zituen nere etxerako 2 kilometroko karretera.

-Gan den astean ere karretera bazterreko larra eta belarrak Zugarramurdik moztu ditu, urtero bezala.

-Nere etxeko hilobia Zugarramurdiko kanposantuan dago, eta harat eremanen naute hiltzen naizenean.

-Badaukat udaletxe bat 2 kilometrotara (Zugarramurdikoa), baina 30 kilometro kurrutu behar ditut Elizondoko udaletxeraino paperen bat egin nahi badut (60 kilometro denetara).

Legez nere etxea Baztangoa egiten dela diote, baina hala bada ez dut konprenitzen Baztanek nola gaituen

ain ahantziak. Kontribuzioa eskatzen dinate, baina ez dakit zertarako: kontribuzioa pagatzen delarik badakigu guretzako jarririk diren zerbitzuak mantentzeko enpleatuko dela diru hori, baina ez dut uste nere kontribuzioa nere-tako enpleatuko denik.

Ez dakit ongi explikatzen duten gure arazo hau, baina erexago konprenitzeko nahikoa da hau xe imaginatzea: Elizondoko baserri bategi Lesakako Udaletxera pagatu behar bere kontribuzioa, naiz eta Elizondoko udaletxeak ematen dion zerbitzu guztia.

Eta hau dena zergatik? Beti bezala, lurra, ontasuna eta dirua direlako nagusi, eta JENDEA IZORRA DA! Hala pentsatzen dute agintari gehienek, eta kasu huntan ongi aski ikusten dugu. Gauza bat garbidaukat, EH, EA eta PNV politika kontuz ari direlarik ozenki erraten dute herriari eman behar zaio la hitza eta herriak erraten duena errespetatu behar dela (autodeterminazioa edo), baina gero udaletxetan, berak erabakitzen ahal duten aferetan ez dute gauza bera erraten. Zer gatik ez dakute guri, baserriarrei, galdeetzen zer nahi dugun? Eta azkenik, ni zuamurdiarra sentitzen naiz eta herri hau maite dut (seguraski hurbil sentitzen dutelako eta berak ematen nauelako behar duten guztia).

Mikel Mitxelena.
Ixtilarteko-borda
(Zugarramurdi)

Guztionean

Iazko abuztuaren azken egunetan gutun berezi bat ailegatu zitzaizkidan zortzi ebalaritari eta beratar bati. Gutunaren barrunean denuntzia batzegoen, baina nik gabeko konzentrazio batean parte hartzeagatik. Konzentrazio hori, herriko besten bezpera egunean Euskal Presoen Euskal Herritarzaren aldekoa zen eta denuntzia jarri zuen pertsona, herriko ostaluetara probokatzen atera zen guardia zibil eza-gun bat.

10 hilabete pasa dira, eta denuntzia hori (akatez beterik dagoena eta datu aunitz faltsuak dituenak) errekursoak jarri eta administratiboki eman daitzeko pausu guztiak eman eta gero, bi aukera gelditu zaizkizkiz lagun hauei; lehendabizikoa epailetara joatea eta bigarrena isuna edo multaren ordainketa. Espainiar justiziak konfidantza gutti ematen die, eta abokatuaren kontsejuari kasu eginez (epailetara irabazteko aukera gutti eta gastuak pilatzeko aukera dextente) bigarren aukera hartu behar izan dute, hau da, ordainketa edo beraien ondasunen enbargoa.

Ikusirik multa bakoitza 300 eurokoa dela eta kopuru guztia 2700 eurotara igotzen dela, konzentrazio horretan parte hartu genuen lagun batzuk, beraiei elkartasuna adierazi nahian, Rural Kutxan kontu korronte bat ireki dugu (3008 0086

26 1112204019) ahal dugun neurrian laguntzeko. Azken finean egun horretan 60 bat lagun elkartu ginen konzentrazioan, eta denuntzietan Asier, Joxepa, Garazi, Anabel, Mattin, Adrian, Migel Mari, Pabli edo Oskar izenak agertu beharrean gutako edozeinen izena ager zitekeen. Kontu korronte honetan egiten diren aportazio ekonomikoekin, denuntzia jaso duten pertsona hauek izan behar duten kalte ekonomikoa ahalik eta tiki-ena izatea lortu nahi da.

Idatzi hau herritar guztiei zuzenduta badago ere, gertatu denaren berri izan dezaten, bereziki konzentrazio hartan edo bertze batzuetan egiten diren gisa horretako konzentrazioetan parte hartzen dutenei (dugunoi) zuzenduta dago, laguntza ekonomikoa eman diezaiogun.

Ezin idatzi hau akautu Iñaki fagoaga, Eneko Zestau eta kottori besarkada bat bidali gabe. Beraiei eta Euskal Herriko bertze preso eta iheslari guztiei.

Abuztuaren 14an berriz ere elkartuko gara herriko plazan, urteroko, egunerko aldarrikapena plazaratzeko. Preso eta iheslariak etxera! (Baimen guziak eskatuko dira).

Elkar ikusiko dugulaokan.

Etxalarko lagun talde bat.

BERA

Aurten ere ederki pasatzeko aukera izanen da bestetan

Hainbat ekitaldi egin dira bestak hasi aitzinetik giroa berotzeko

Asier GOGORTZA
Ortziral honetatik asteartera ospatuko dira herriko bestak, baina, urtero bezala, besta giroa prestatzen joateko hainbat ekitaldi prestatu dituzte herriko talde desberdinek. Joan den asteburuan bertan hasi ziren emanaldi batzuk. Larunbatean, Toki Ona Institutuko Guraso Elkartek antolatutako Golden Apple Quartet talde famatua aritu zen kantari. Kultur Etxean izan zen saloa.

Biharamunean haurrentzat puzgarriak izan ziren igerilekuan, goizez 11:30etatik 14:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 18:30etara. Asteazken arratsean, Gure Txokoa Dantza taldeko dantzari ttikiek emanaldi berexia ematu



Igande honetan burutu da Miguel Indurain saria.

ARGAZKI: AYLA

teko asmoa zuten Eztegaran, Euskal Herriko dantza ezberdinen inguruko ibilbide batekin.

Besten atarikoekin segituz, La Miguel Indurain sariaren aipamena ere egin behar dugu, igandean egin bai-

tzen. Bezperatik bizikleta feria izan zen ikusgai Toki Ona kiroldegian. Urtero bezala hainbat txirindulazale bildu di-

FLASH

Antzeko Parezido, Ipar Irlandan

Berako zenbait gaztek osatutako antzerki talde honek Ipar Irlandan ospatzen den antzerki jaialdi batean parte hartuko du abuztuaren 17tik 26ra.

Areto futbol txapelketako finala

Egunotan ospatzen ari den koadrilen arteko futbol txapelketak abuztuaren 1ean izanen du akabera. Egun horretan bi talde hoberenek finala jokatuko dute arratseko 9etatik aitzinera, eta ordu bat lehenago, arratseko 8etan, hirugarren eta laugarren postua erabakiko dituen partida jokatuko da.

Areto dantzak

Areto dantzen ikastaroan parte hartu duten ikasleek erakustaldia emanen dute abuztuaren 1ean. Denetara 20 bat lagun aritu dira dantzan ikasten, 10 bat gaztetxo eta bertze hainbertze heldu. Hitzordua Kultur Etxean izanen da, arratseko 8etan.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Nicolas Ardanaz argazkilaria nafarraren erakusketa abuztu osoan egonen da ikusgai

XX. mendeko argazkilaria nafarren artean ospetsuena izandako onen lanak ikusten ahalko dira abuztuaren 2tik 29ra bitartean Berako Kultur Etxean, 1910. urtean sortu zen Ardanaz eta ttikitian atak oparitutako argazki ka-

merarekin betirako sartu zitzaion argazkilaritzarako zaletasuna. Erakusketa honetan mendeguziko Nafarroako paisaia eta pertsonen erretratuak biltzen dira, tartean Gerra Zibilekoak eta gerra ondorengoak ere bai.



ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Anteburu eta jai egunetan menu berezia
Fonaren Plaza 1 • T: 948 831155 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Aitzale, 5 • T: 948630083 BERA

LESACA

Mendirako bertze ibilgailu arin bat izanen dute su-hiltzaileek

Azken bi urteetan hogeita zortzi ateraldi egin dituzte herriko boluntarioek

Aitor AROTZENA

Herriko su-hiltzaile boluntarioek mendian ibiltzeko ibilgailu arina izanen dute urte akabailan, zuzendaritza batzordeak bi urteotako balantzea eginez argitara eman duen txostenaren arabera. Ibilgailu hori Nafarroako Gobernuak ordainduko du oso osorik eta ur-bonba ere izanen du.

Argitalpenaren arabera, 24 eta 28 su-hiltzaile artean aritzen dira herriko parkean eta azken bi urteetan 28 ateraldi egin dituzte: bortz oihan suteak izan dira, bederatzirentzat ekitaldiak (sute kontrolatuak), bederatzirentzat sute etxeetan eta bertzelako bortz ateraldi. Txostenaren arabera, talde eraginkorra osatua da Lesakan, ateraldi guzi hauetan partehartze handia izan baita. Modu berean, urtero elkarrekin lau maniobra egiten dituzte eta bakoitzean hogei bat su-hiltzaile hartzen du parte.

Uztaila hasieran Lesakan bildu ziren Nafarroa eta Iparraldeko su-hiltzaile parke ezberdinetako partaideak, elkarlanerako izaten ahal diren ekimenak azter-



UTZIANO ARGALDIA

Hendaiaiko Besta Batzordeak eta Sukalki elkarteak zazpigarren urtez antolatutako Sukalki lehiaketan hirugarren postua eskuratu zuten ekainaren 9an Periko Maia eta Salvador Zubietak, Arkupe elkartearen izenean. Aretze haragia prestatu behar zuten eta guzira 28 bikote aurkeztu ziren. Arkupeko lesakarrak, Hendaiaiko Herri Urrats eta Irungo Bentako Kateko elkarten gibeletik sailkatu ziren.

tzeko. Herrikoekin batera, Bera, Goizueta, Leitza, Luzaide, Isaba, Agoitx, Hendaia eta Azkaingo su-hiltzaileak izan ziren, baita Alfredo Gonzalez eta Fran Etxeberria, Nafarroako Gobernuko Barne Departamenduko ordezkariak.

Bi urteotako laburpena egiten duen aldizkaritxo honetan aipamen berezia egiten zaio bi su-hiltzaileen herio-

tzari, Jose Mari Igoa «Lastol» eta Javier Sadaba «Altxafero» su-hiltzaile taldeko sortzaileak eta kide historikoak baitziren.

Oiartzunerako errepidea itxiko dute

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak jakinaraziduenaz, Lesaka eta

Oiartzun lotzen dituen NA-4000 errepidea itxia egonen da abuztuaren 1, 2, 5, 6 eta 7an, zolaberritze lanak egiteko, goizeko 8:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 14:00etatik 19:00etara. Aitzinetik, uztailaren 19, 22, 23, 24, 29, 30 eta 31n ere ibi egin dute arrazoi beragatik. Lesakako irteeratik Gipuzkoako mugara ezin izanen da autorik ibili.



PERTSONAIA

Mikel ORTIZ de URBINA

Herriko albiente berria Sanferminetatik aitzin

Herriko bestetan egin zuen estreina albiente berriak, Mikel Ortiz de Urbina 31 urteko gipuzkoarrak. «Bestak normaltasunez eta arazo handiegirik gabe joan dira -dio-, baina pena da ortziral eta larunbat gauean kartera aunitz ebatsi zituztela». Aitzakoa baldin bada ere, familia badu Lesakan eta ongi ezagutzen zuen lehendik herria. Ez dio arazo handiegirik ikusten Lesakan lan egiteari. Hori bai, «ohitura txar batzuk hartuak ditu jendeak, batez ere autoak edozein lekutan aparkatzeko orduan. Ohitura horiek desagertarazten saiatuko naiz». Aitzineko txandan bi albiente aritu ziren lanean. Orain Mikel Ortiz de Urbina bakarrik ariko da, baina herriko etxeko bertze langileen laguntza eskertu du. Lehiaketako azterketak gainditu ondotik, bederatzirentzat hilabeteko ikastaroa egin du Nafarroako Gobernuko Seguritasun Eskolan.

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESACA

IRU BIDE
BERRIKAPAZ
Tlfnoa: 948 637 127
LESACA

ANA
jantziak
Bittiri 41 • 948 637518 • LESACA

XATURETXEA
ZABIA
JATETXEA
Tlfnoa: 948637027 LESACA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsun egokiena
Tlfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR

Parapettoa eta Bortza enkantean ateratzea erabaki du Udalak

Usategietako postu bakoitzaren prezioa 150 euro igo du Udalak

Joseba eta Nerea

Herriko usazaleak izan dituzten zenbait arazo direla medio, aurtengo Udalarik ondoko eskariak aurkeztu dizkio arazo hauek konpondu ahal izateko: Lehendabizikoa, zuhaitzekin gertatutako aferra dela eta, Parapettoa eta Bortza ez daitezela enkantean eman eta datozen urteetan gisa honetako aferak gertatuko balira, postu horiek enkantean ez ematea. Bigarrena usazaleei 9 walkie-talkie ematea, guziak frekuentzia kodifikatuekin. Hirugarrena, korneta bi aldiz jo baino lehen norbaitek tiroa botatz gero, postu horretako guziak eberra joan daitezela eta postu hori egun guzian hutsik egon dadila agintzea. Laugarrena, sareak hedatuak dauden bitartean zaindaria han egotea uneoro. Bosgarrena, Lizaietako sarbidea murrizteko sistema segurua eta praktikoa jartzea. Erabaki guzi



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Udalekuetako azkeneko eguna

Ortziral honetan akabatu dira udaleku irekiak. Herriko haur andana egon da uda osoan hainbat ekintza burutzen eta laz egin zuten bezala azkeneko egunerako jaialdi berezia prestatu dute. Herriko igerilekuan play-back lehiaketa bat antolatu zuten eta joan ziren guziek ederki pasatzeko aukera izan zuten haurrek egin zituzten dantza eta ikuskizunaz gozatuz.

hauek onartu ditu Udalak Parapettoa eta Bortza enkantean ez sartzeara izan ezik.

Usategietako postuen subasta

Udaletxeak ehizako postuen prezioak igoztearabaki du eta horrela, hurrengo irailean egingen den enkantean

postu bakoitzaren prezioa 150 € gehiago izanen da.

Correos-en inguruan

Nahiz eta baseritarrek Correosekin zeukaten arazoa itxuraz konpondu den, badirudi herriko zenbait bizilagun ez dagoela hagitz

gustura Correosek orain eskaintzen duen zerbitzarekin. Izan ere, orain arte genuen postariak oporrak hartu dituenetik eta bere ordeztar batek hartu duenetik, hainbat bizilagun kezu dira zerbitzu eskasagoa eskaintzen delako. Erraterako, egunero posta ailegatzen zi-

FLASH

Usategietako etxola berria

12 lagunez osaturiko herriko ehiztari talde bat, Usategietan lehenagotik dagoen txabolaren azpikaldean erabilera pribaturako bertze bat egiten hasia da. Udalak luraren baimena prekarioan eman die, hau da, herriak lurra berreskuratuko du horretarako arrazoirik izanez gero, edo baimen honen helburua ez bada betetzen.

Dantzari ttikien afaria

Uztailaren 28an Altxata Kultur elkarteak herriko dantzari gazteenei afaria eman die frontoian.

Berriemaileen agurra

Oporrak hartu antzinetik idazten dugun azkeneko Ttipi-Ttapa denez, orrialde hau idazten urte osoan lagundu digutenei gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu, bertzeak bertze Patxi Irizarri, Manuel Leza, Birjina Arburua, Pello Apezetxea, udala eta bertze aunitzeri.

tzaien zenbait etxetara orain astean behin bakarrik iristen da. Espe-ro dezagun arazo hau ere konponduko dela, guzian onerako.

KOXKILA OSTATUA

Zarandía, 4 - LESAKA

LOREDENDA

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESACA

- bitakeriak •
- opariak •
- ermarkazioak •

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazioa
Tabakoa	Enkoadernazi
Opariak	☐
Kukukumusu	Lanak
u	Inprenta
Kaniz	Liburuak

Egunero irekia

Tifrea./Ploa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO

OSTATU - JATETxea

Albistur, 10 • 948 63 04 01
Txale • 40 0000

IGANTZI

Abesbatzak herriko jendea sartzera animatu nahi du

Amabirjin ondotik hasiko dira berriz ere pilota ikastaroak

Oskar TXOPERENA

Ohikoa den bezala, oporretako garaia da orain herriko abesbatzarentzat. Ez du horrek erran nahi deus egiten ari ez direnik. Jakina da urtean zehar Apaizaren etxeko, Erretorbaitako bigarren solairuan biltzen direla ortziralerok entsaiatzera. Bada, entsaio lekua tiki samarra gelditu zitzaenez, bigelaz bat egitea erabaki zuten iaz, eta abuztuaren 16an hasiko den "ikasturte" berrirako prestatu nahiko lukete. Horretaz gain, leku gehiago izanen dela aprobetxatuz, gonbidapena zabaldu dute herriko etxeetan kantatzea gustoko dutenak abesbatza sartzera animatuz. Oharrean dioenez, orain omen da garairik hoberena taldearen marxa hartzeko. Errana gelditzen da hemen ere.

Pilota eta pala

Amabirjin ondotik hasiko diren bertzeak he-



ARRAZOAL: OSKAR TXOPERENA
Herriko bestek ematen diete dantzari urteko lanak erakusteko aukerarik hoberena. Baina horretarako lan anitz egin behar izaten dute aintzinetik.

rriko pilotari tikiak izanen dira. Abuztuaren 20a edo 21a aldera helduko diete berriz ere urteroko martxari, pilotaleku berria egin zenean hasi zirenez eurentzat bosgarren ikasturtea izanen denari. Hasieran makal samar ibiliko dira seguruenik, baina abudo hartu beharko dute marxa, segidan hasiko baita herriko bina-kako txapelketa.

Pala Txapelketa ere azken txanpara ailegatu da. Partidak jokatzeko egunetan giro polita izaten da pilotaleku inguruan eta pentsatzen da abuztuaren 3an jokatzeko diren finaletan oraindik hobea izanen dela, urtero bezalaxe.

Parrokiko bidaia

Urtero antolatzen dute Igantzi eta Arantz-

ko Parrokien eliza garbitzen dutenentzat bidaia.

Aurtengoa, joan den uztailaren 18an egin zuten ateraldia Gasteiz aldera. Eguraldi ederraz gozatzeko aukera izan zuten aranztarrekin jondako 31 herritarrek. Joateko modua edo gogoia izan ez zutenek, berriz, berendua izan zuten aintzineko egunean La Villa jatetxean.

Herria ezagutz

Meategiak

XIX. mendearen hondar aldera indar handia hartu zuen Igantzin meategien esplotazioak. 1821ean egindako zenbait saiakeraren berri agertzen bada ere, 1890 inguruan "Societe Metallifere de la Bidasoa" frantses lan-tegia izan zen minerala ateratzeari serioski ekin zion lehendabizikoa. Berriazundik Doneztebe aldera doaien errepi-dean kilometro batera. Oraindik bertan ikusten ahal dira fabriken eta "San Luis" eta "San Juan" meategien aztarnak. Bertze batean anko gara luzeago hainbertzeko garrantzia izan zuten bi meategi eta fabrika haue-taz. Oraingo aipamena orokorragoa denez, Igantzin 75 meategi edo meazu-lotik goiti erroldatuak bazirela erranen du-gu, herriko ia eremu guzian zabalduak: Onbordin (San Francisco), Larrondo (San Prudencio), Burkai-tzandin (Anatol), Si-monbaita aldean, ... Ikusten den bezala, meategi bakoitzari bere izena paratu be-har izaten zioten eta anitz santuen izene-kin bataiatzen bazi-tuzten ere, badira ber-tze zenbait kuriosoa-k direnak. Frantsek izendatutakoak: "Antoinette", "Blan-che"; Juan Bautista Manterolaren izene-an zegoen "Gauzak-Ongui-eguin"; "Jua-nita del Centro", "Chi-ripa", etabar...

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurrria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gilolina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



ZALAIN
JATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Ereaga 41. Tfn: 948 630 899 - BERA

ARANTZA

Aspaldiko partez herrian okindegia lanean paratu du Jabi Larretxea gazteak

Astearte eta ortzegunetan kirolean ari dira herriko gaztetxoak

Nerea ALTZURI

Lehen ere ezagutu da okindegia herrian. Duela 40 urte inguru gibelera eginez, herri kaxkoko Lopenea etxeko beheko solairuan (gaur egun Jabier kooperatiba dagoen lekuan) okindegia zegoen. Baina ondotik, ordutik honat, urte saila pasatu da. Herri-tarrek Bera eta Lesakako okindegietakokiak hartzen zituzten. Orain, uztailaren lehen egunaz gerotzik, Jabi Larretxea Apezetxea, 29 urteko gazteak ilargi okindegia martxan paratu du. Irunen bolada batez ogia egiteko prozesuaren ikasketak egin ondotik, egunero-egunero eguzkia ateri aitzinetik ehunka ogi martxan paratzen ditu Jabi-herri kaxkoko nahiz auzoetako etxeetan barrena ogiekin ibiltzen da ibilgailuarekin okina laguntzaileekin, eta abudo, denda ere idekiko dute herrian.

Goizean-goiz jeikita abiatzen du eguna Ja-



ARANTZA

Herriko gaztetxoak astean hirutan jo ta ke ari dire entsalatzten. Aurtengo deialdia hala ere dantzari eta dantzazale guzietan idekia da Arantzako dantza dantzatzeko. Animzte!

bik. Aspaldiko bere ametsa bete du ilargi okindegiarekin. Nahiz eta oraindik ere gaztea izan, lehenagotik, gaztetasunarengatik ez zen hasi lan honetan martxa hartu du dagoeneko herri-tar gazteak. Zorionak! Herri-tarrok estimatu du-gu herrian bertan okindegia izatea.

Kirolari gazteak udan lanean

Herriko gaztetxoak, eskolako oporrak hartu orduko, ez dira geldirik egon. Bestetako prestatzen ari dira pilotari gaztetxoak euren saioa egiteko; eta hontaz gainera, aintzinako ale batean aditzera eman bezala, bertze kirolean ere

trebatzen ari dira urtero bezala. Guzira hamabortz inguru haur saskibaloian, futbolearen, tenisean, boleibolearen, patinajearen... ari da astean bi aldiz. Raul Iparragirre eta Iñaki Irazoki, arantzarra eta bertarra dituzte irakasle eta astearte eta ortzegunetan 18:30etatik 19:30e-

tara aritzen dire kirol-jostetan. Uztailaren 15ean abiatu ziren eta abuztuaren lehenbiziko hamabortzaldia eginda akautuko dute aurtengo udako kirol-ikastaldia.

Eliza garbitzeko saria

Urtero bezala aurten ere ateraldia egin dute eliza garbitzaileek. Uz-tailaren 17an egunpasa Gasteizen izan ziren herri-tar kuadrilak. Goizean goiz autobusa hartu eta igantziarrakin batera egun ederra pasatu zuten. Herrietako parrokiek antolatzen dute bidaia urtero-urtero, txandaka herriko etxe bakoitzak eliza garbitzeko egiten duen lanaren sari.

Egun ederra pasatu zuten guziek; baina aintzinako astelenean ere berendu ederra egin zuten hogeitamar bat lagunek. Bidaia honetara joatea ezinezkoa zutenek ere euren saria izan zuten dudarik gabe.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, Betsatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittina 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L. • 948133328-133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Harategia

Eztegara 3

Tfnoa: 948 630 198

BERA

ADINEKOAK

Jaizkibel eta Hondarribia bisitatuko dituzte Arkupeak elkartekoek

Irailaren 17tik 26ra Kataluniako Costa Bravera joanen dira

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak bidaia egingen du abuztuaren 8an Hondarribiara. Egurdiko 12:30etan Mesa Saindua adituko dute Guadalupeko Ama Birjinaren Santutegian, inguru honetako apez batek emana. Aitzinetik, eguraldiak laguntzen badu, Jaizkibel inguruan ibilalditxo bat egingen dute eta bertzenaz, zerbait asmatuko dutela adierazi dute antolatzaileek. 13:45etan Ardora jate-bxean bilduko dira, hondartza ondoan eta bertan bazkalduko dute: Menestra, kokotxak saltza berdean, eskalopea purearekin, Cava kopakada eta besoa txokolate beroarekin izanen dute menuan, ardo, ura, kafea eta kopa normalekin hornitua. Arratsaldean, 17:00etatik 19:30etara dantzaldia izanen da leku berean, baina nahi duenak izanen du hondartzan bertze ibilalditxo bat egiteko aukera. 19:45etan



Argazki: ANARA MINDEGA

Uztailaren 19an zabaldu zen ofizialki N-121-A errepidean Sunbillako Arri-gazteluko zati berria. Jose Ignacio Palacios kontseilariak, Bustiolako Juan Apeztegiaren laguntza izan zuen zinta moztekoan.

abiatuko dira autobusak etxera bueltan.

IRAILAREN 17TIK 26RA COSTA BRAVARA

Egun bakarrekoko ez ezik, bidai luzeagoak egiteko asmoa ere badute Arkupeak elkartekoek. Irailaren 17tik 26ra Kataluniako Costa Bravera joanen dira, L'Estartit herrira, hain zuzen,

Irailaren 17an, goizeko 6:30etan abiatuko dira Irunitetik. Bidean bazkaldutxo ondotik, arratsaldean hondartzatik 30 metrora dagoen Panorama hotelera joanen dira. Hiru izar eta igerileku girotua du L'Estartit herriko hotel honek. Han ateraldiak egingen dituzte, horretarako aukera zabaldua baitute: lorategi

botanikoa, Erdi Aroko herriak, Gironako auzo zaharra, Aroko hondartza, Humedaleseko natur parkea, Pereladako Gaztelua, egun guztiko bidaia Garotsako sumendi alderdira, Medes irletatik joanetorria itsasontzian... Itzulera egunean, Pilarika agurtu eta Zaragozan bazkalduko omen dute.

Alzheimer-en espezializatutako erizain ikastaroa antolatu da emakume langabeentzat

ttipi-ttapa

Nafarroako Emakumearen Institutuak Alzheimer-en espezializatutako erizain laguntzaile ikastaroa antolatu du, langabezia dauzen emakumeei zuzendua. Ikastaroaren iraupena 200 ordukoa da eta irailaren 16tik azaroaren 11ra emanen da. Edukiei dagokionez, Alzheimer eritasunera sarrera, eritasunaren tratamendua, eritasunaren gorabehera fisiko zein psikikoen tratamendua, eritasunaren eragina familia zein zaindarian, orientazio soziolaborala eta aukera berdintasuna eta lan aukera berriak izanen dira eskainiko diren gaiak. Izen emateko (OHO, BBB edo LH ititulazioa behar da) edo informazio gehiago esku-ratzeko Nafarroako Emakumearen Institutuan: 948 206604; www.codicecantabria.com; nova@codicecantabria.com

616 513 491

Pititi

ESKABAZIOAK

C/Amelia

1010 DONEZTEBE (NAFARRA)

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Alberto RETEGI

abokatua

Aitzate 17
BERA
☎ 948 630 763

GOIZUETA

Estatuko akanpaleku onenen artean omen dago herriko Ixkibi kanpina

Consumer aldizkariak egindako ikerketaren arabera

Esteban AROTZENA

Eroski Fundazioak argitaratzen duen Consumer aldizkariak egindako ikerketaren arabera, estatu osoko kanpinen artean Nafarroakoek dute zerbitzu eta prezioen arteko orekarik onena. Aldizkariak 99 akanpaleku aztertu ditu, horietatik 7 Nafarroan, prezioa, segurtasuna, ekipamendua eta prestazioak neurtuz. Nafarroako kanpinak jaso dute notarik onena, 6 puntu eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Kantabriakoek baxrena, 4'4.

Zerbitzuen eta prezioen arteko orekarik onena eskaintzen duten hamar kanpinen artean Nafarroako bi daude,



ARITZALEKUN

Ixkibi kanpinak, eskaintzen dituen zerbitzuen eta prezioaren arteko oreka onenetakoa eskaintzen du, Consumer aldizkariaren arabera. Gainera, estatu osoko kanpinen artean preziorik merkeenetakoak ditu.

Etxari-Aranazkoa eta Goizuetako Ixkibi, hain

zuzen. Segurtasunari dagokionez, Valentzia-

koekin batera, Nafarroakoak dira onenak. Na-

farroan 20 kanpin daude eta, esan bezala, 7 aztertu dira. Guziek dute garbilekua eta igerilekua. Prezio aldetik, Nafarroako kanpinak, Errioxa eta Koruñakoeekin batera, dira merkeenak. Arlo horretan, Ixkibi aipatu behar da berriz ere. Konparazioa egiteko, abuztuaren lehen hamabostaldian 15 eguneko egonaldia senar-emazte eta bortz urteko umeari zenbat gastako litzaiokeen aztertu da. Goizuetako kanpinan, 173 euro gastako litzateke egonaldi hori. Nafarroa osoko merkeena. Lerateko Aritzalekun, adibidez, 335 euro gastako litzateke egonaldi bera.

ARESO

David Garcia apaiza gazteak herria utziko du abuztu bukaeran

Eva Gurutxarri izango da bake epailea hemendik aurrera ere

Juana Mari SAIZAR

David Garcia herriko apaiza gazteak abuztuaren bukaeran utzi egingo gaitu. Lau urte egin ditu herrian eta asko ikasi ahal izan dugu bere lanaz. Espero dugu berak ere gutaz oroitzen onak eramango

dituela. Ondorengoa oraindik izendatu gabe dago, baina apaiz eskaldunen eskasiak aukera gehiegi ez du uzten.

Bake-epailea

Azken batzarrean Udalak berriro ere Eva



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Euskara Zerbitzuak antolatutako Udalekuetara Alkizan zazpi egun pasatzera joan dira herriko lau gaztetxo.

Santurtzin Euskadiko txapelketa Maitanek ehun metro libre eta 200 metro estiloetan urrezko domina lortu zuen eta Uxuek ehun metro brazan bi segundu jautsi zuen bere marka.

Gurutxarri herriko gazte izendatu du bake

epaile, bera izan baitzen aurkeztutako bakarra.



LEITZA

FLASH

Herrian dauden Saharako ordezkariekin solasean

Mediku tratamendua hartzen ari dira bi neskak



Mikel ILLARREGI

Aurreko zenbakian Saharatik etorritako 8 lagunen berri azaltzen genuen, oraingo honetan, saharatik duela bi urte etorritako bi neska gazteen elkarrizketatxo aipatu nahi dizuegu. Bata, Sennia Ahmed Said eta Hakima Nafee Ahmed bestea. Biak hemen daude hasierako berriari arazo eta hesteko kisteak sendatzeko mediku azterketa eta tratamendua dirauen bitartean. Hona etorri aurretik hamabost urteko neska hauek Andaluzian, Galizian eta beste zenbait tokitan izan dira.

Noiztik eta noiz arte zaudete hemen?

Sennia: 2000ko uztailaren 7an etorri nintzen "Smarratik" eta noiz arte ez dakit, sendatu arte, ikasketak ere aprobetxatu nahi nituzke. Orain 2007ra arte lortu dut pasaporte.

Hakima: Nik ere pasaporte lortu dut eta bitartean mediku tratamendua amaitu nahi dut. Hona 2000ko urrian etorri nintzen "27 de febrero" deitzen den kanpamentutik.

Zer moduz zaudete hemen? Zer egiten duzue?

Biek: Oso-oso ongi. S: Astez ikasi Irurtzunen DBH-2, egunero ta-

xiz eramaten naute harrera. Gero eskolako lanak eta futboleko entrenamendua. Asteburuetan eta oporretan inguruko herriko festetara joaten naiz, baita San fermi-netara ere.

H: Berdin, astez ikasi La Granja institutoan DBH3a. Klase partikularrak hartzen ditut ondoren eta txakurra paseatu. Joan de urtean futbol ekipoan ere aritu nintzen. Jai egunetan, tabernan, etxean, sukaldian, ... lagundu. Lagunekin atera eta irakurri. Asko irakurtzen dut.

Jendeak, familiak nola hartzen zaituzte?

S: Oso ongi, etxean, Aiene baserrian, gurasoekin oso ongi eta Maider eta Danirekin nire anai-arrebak balira bezala. Herrian koadrila dut.

H: Oso ongi guztiekin. Nik ere koadrila badut.

Hona etortzerakoan zerk harritu zaitue gehien?

S: Hizkuntzak, euskara aditzeak. Zeresaten ote dute hauek? Pentsatzen nuen.

H: Neska eta mutilen arteko harremanak. Han harremanak ezkutukoak dira.



Hakima eta Sennia, Saharako ordezkariak herrian.



Zer da faltan somatzen duzuen?

S: Dena; gurasoak, lurra...

H: Ba... familia, ... eta lurra.

Hango familiarekin harremanak badituzue?

Biak: Haiek deitzen dutenean telefonoz hitz egin eta tarteka kartak bidaltzen ditugu.

Hango ohiturak mantentzen dituzue?

S: Guztiak; txerriak ez dut jaten, hemengo erlijioa errespetatzen dut baina nik nire ohituretan sinisten dut...

H: Hemen beste modu batean bizitzen da eta pixkana bizitzeko beste era bat ere hartzen duzu.

Euskara ulertzen, hitz egiten duzue?

S: Ulertu gehiena eta hitz egin pixka bat.

H: Ulertu dexente, hitz egin gutxi oraindik.

Zerbait gehiago?

Biek: Eskerrak denoi, etxekoei bereziki.

Txirindularitza

Mikel Nieve jubentzetan denborakdia bikaina egiten ari da eta horregatik Nafarroako selekzioan hartu dute estatu espainoleko kopan parte hartzeko. Horretaz gain, estatu mailan aukeratutako 15 txirindularien artean dago. Hauetatik aukeratutako zortzi parte hartuko dute Munduko txapelketan. Inigo Lizartza ere, kadetetan, Espainiako txapelketan parte hartuko du Nafarroako selekzioan. Txirindularitzaren inguruko berri gehiago irail hasieran.

Festa giroan

Plazaola aldirikariko azalaren lehiaketa Estitxu Caballerok irabazi du. Honetan Joxe Mari Zabaletaren laguntza izan du. Gazte mailako lehiaketa Iraia Ceballosentzat izan da. Aurten 100 urte plazako frontona egin zela, Bautista Sukuntzak egin zuen, Petra Sukuntzaren atek hain zuzen. Hori dela eta, uztailaren 11ean, pilota mundua omendu nahi da eta saria Abel Barriolak jasoko du.

Erakusketak

Abuztuaren 6tik 18ra Maria Uriarteren landare eta lore lehorrak eta abuztuaren 19tik irailaren 1era Koldo Fagoagaren popurria (marrazkiak...).

GAZTELU

Gazteluko Santo Domingo bestak abuztuaren 2tik 5era

Mindegia eta Arriaren arteko aizkora apostua izanen da egun handian

Ortzirala 2

20:00etan suziariak. Ondoren txistulariak karririk alaitzen ibiliko dira. **21:00etan** Baztan-zopak herriko ostatuan.

Larunbata 3 Haurren eguna

10:00etan kalejira. **10:30etan** mus txapelketa herriko ostatuan. **16:30etan** haurren jokoak herrikoak antolatuta. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia DUO ANTAXETArekin. **22:30etan** gazteen afaria. **00:30etatik aurrera** dantzaldia DUO ANTAXETArekin. **5:00etan** zingarrada plazan.



Igandea 4 Santo Domingo eguna

10:00etan kalejira. **11:00etan** Meza Nagusia. Ondoren salda herriko ostatuan. **13:00etan** aizkora apostua: Mindegia Arriaren aurka. **18:00etan** pilota partiduak. **20:00etatik 23:00etara** dantzaldia DUO ANTAXETArekin.



Argazkiak: Roberto Urtiaga

Emakume koadrila apezaren etxe atarian. Behean, aspaldiko argazkian apostuan hasteko prest daude Argingaraiako Pantxo, Ganboko Miguel, Ostatu-ko Jesus eta Enekeneko Martin. Aurten ere izanen da aizkora aposturik.

Astelehena 5

10:00etan kalejira. Ondoren gosariak herriko plazan. **14:00etan** ziki-

ro jate. **18:00etan** jokuak herrikoak antolatuta.

20:00etatik 23:00etara dantzaldia DUO AN-

TXETArekin. **23:00etan** afaria herriko plazan eta



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

 **TXARUTA, S.L.**
Iturgintza, Kalefakzioa eta Gasa
Ongi pasa bestak!
Tel: 948 45 17 63 - 659 77 00 15 • GAZTELU

 **HERRI OSTATU
• GAZTELU •**
Gosari, bazkari eta afariak
Haragiak plantxan eta arrainak labean
Kaxuelak eta eteko postreak
Tel: 948 450105 • GAZTELU

SUNBILLA

San Tiburtzio bestak
abuztuaren 10etik 14ra**Larunbata 10**

17:00etan profesionalen arteko pilota partidua. 20:00etan txupinazoa. Ondoren itzulia herrian barna LARRAKAITZ txarangarekin. 22:00etan Baztan Zopak Ulibeltzak elkartean. 00:00etatik aitzin dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Igandea 11**San Tiburtzio Eguna**

11:00etan Meza Nagusia Tiburtzio Deunaren ohore. 12:30etan haurren esku pilota partiduak: Julen Ibarra eta Urko Ibarra, Jon Mitxelena eta Iñigo Arrietaren kontra. Iñaki Larralde eta Xabier Elizalde, Luis Ibarra eta Xabier Altzugaraien kontra. 18:00etan aizkora apustua Lata-saren ohorez. 20:00etatik 22:00etara dantzaldia TXIMELETA taldea-



Besta egiteko tenorean, adinak ez omen du barkatzen... Ez dakit, ez dakit...

rekin. 22:30etan su artifizialak Astondoa Piroteciarekin. 00:30etatik

aitzinerara dantzaldia TXIMELETA taldearekin.

Astelehena 12**Haurren Eguna**

10:30etan txirindulari karrera, gazte mailan. 12:00etatik 14:00etara

Gaztelu puzgarriak, quads... 16:00etatik 19:00etara joko didaktikoa haurrentzat. 19:00etan aitzur tiraketa eta zartain tiraketa Zubi Berrian. 20:00etatik 22:00etara eta

00:00etatik aitzinerara dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Asteartea 13

12:00etan goitibeherak. 16:30etan Olegi para-jean, herriko plater tiraketa. 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik aitzinerara dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Asteazkena 14**Ekorduen eta****Koadrilen Eguna**

10:30etan mus txapelketa, Ulibeltzak elkartean. 12:00etan Bidasoa Txipi Txapia. 12:30etan Igerileu frogak eta jokopak igerilekuan. 14:30etan Koadrilen bazkaria Bustitz ostatuan, LARRAKAITZ txarangarekin. 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik aitzinerara dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

MARISOL
JANARIDENDA

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 06 - SUNBILLA

GAZTANDEGIA
Lizun Etxeko Ardi Gazta
Pitxernekoborde • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Maria Jesus

HARATEGIA

Bertako haragia saltzen dugu

Ongi pasa bestetan!

Karrika Nagusia, 11
Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

ESPELOSIN
ERAIKUNTZAK

Auloa Baserria
Tfnoa: 948 45 07 73
Mugikorra: 619 416 959
SUNBILLA



Pilotalekuaren inaugurazioa, 1971. Urteko martxoaren 19an, D. Basilio Sarobe apezak eman zion bedeinkapena eta Angelusa kantatu zuen. Gibelean, pilotariak (Bergara I eta Azkarate, Pierola eta Lajosena kontra). Hauetaz gain, Hermógenes Etxenike Sunbillako alkatea ageri da, Nafarroako Pilota Federazioko Reclusa jaunarekin batera. Sei garren koadroan Miguel Latasa Petrirena, Espainiako Pilota Federaziokoa ageri da.

Behetik argazkian, Frontoia gainezka ageri zen. Alkate eta zinegotziekin batera, Isabel Mitxeo diruzaina, Maximo Errandonea, eta Nicolas Mitxeltoarena, Angela Burgete, Ines Baztarrika maisu-maistrak eta Isabel Villanueva ageri ziren.



SUNBILLA

*Sunbillako Udalak
Besta zoriontsuak
opa dizkizue
sunbildar
eta bisitari guztioi*



KLUBO MENDI ETA ABELTZAINZA

Tel. Fax: 948 450 504
Moz. 450 907 207
948 451 304
SUNBILLA
NARRAZA

IRURI MOTOR 

Iruribietan etxea
SUNBILLA
☎ 948 450 399
☎ 696 974 454

Nissan Pick Up, Lada Niva,
Nissan Patrolak,
motzak eta luzeak

Terrano II eta Patrolak luzeak eta motzak

Besta ederrak pasa!!

Bustitz
ostatua

Lekueder
☎ 948 45 01 54
SUNBILLA

ILEARRINDEGIA
"ARTAZI"



Ongi pasa muntzetan!

Ezkontza, batua
eta jai martzetan hamazteko opariak

Gindal ibiltokia, 3 1.D
Tfnoa: 948 45 08 44 • **SUNBILLA**

ITTURBURU
OSTATUA

- Pintxoak
- Bokatak
- Plater konbinatuak

Karrika Nagusia 23 • ☎ 948 451703 • **SUNBILLA**

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak abuztuaren 2tik 6ra

Larunbatean harrijasotzaile eta aizkolarien erakustaldia egingen da

Ortzirala

Abuztuak 2

20:00etan ALTXAFEROAK, beste hasiera emateko.

Ondoren kalejira Herriko trikitilariekin.

21:00etan ZOPAK herriko Ostatueta.

Gaueko 00:00etan dantzaldia MODESTOekin.

Larunbata

Abuztuak 3

Haurren Eguna

11:00etan kalejira herriko trikitilariekin.

Egunean zehar BETI-JAI txaranga herrian barrena ibiliko da.

12:00etan eta 17:00etan Jolas Parkea.

19:00etan aizkolariak eta harrijasotzaileak: Lasarte eta Tellebxa, Urrutia eta Mindegiaren aurka.

Arratsaldean eta gauez dantzaldia TXIMELETA

taldearekin.

Igandea

Abuztuak 4

11:00etan Argi soinua Iturengo txistulariekin.

12:00etan Meza Nagusia

13:00etan Aizkora Apostua: Nazabal - Larretxea, Olasagasti - Arrosperiden aurka.

18:00etan Pilota partiduak.

Arratsaldean eta gauez dantzaldia SCANIA taldearekin.

Astelehena

Abuztuak 5

11:00etan kalejira.

12:00etan Plater haustea.

17:00etan Pilota partiduak plazan librean.

18:30etan ABERE erakusketa, GORRITIREN eskutik.

Arratsaldean eta gauez dantzaldia DUO CIU-DADELA taldearekin.



ARGAZKIA: AMAN URROTZEK USTAN

Duela urte batzuk herri bazkarian ateratako argazkiak. Aurtengoan Imanol Lazkano eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak izanen dira bertan.

Asteartea

Abuztuak 6

11:00etan kalejira Itu-

rengo txistulariekin.

14:00etan Herri Bazkaria. Imanol Lazkano eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

19:00etan Herri kirolen erakusketa. FERNAN-

DORREN eskutik. Arratsaldean eta gauez dantzaldia "MODESTO"

LESKA

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabeta
- Azma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostatia, etab....

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi leunoak-katarata

GIHARRE ARAZOAK

- Biskortzea
- Artritisa, erreuma
- Artrosia, Lumbalgia
- Bihurdurak, etab....

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldean 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

BEINTZAko OSTATUA

Ongi pasa
herriko bestak!

F. 948 40 074
BEINTZA-LABAIEN

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzea
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735 - 607 406781

BAZTAN

Zigako San Lorenzo bestak abuztuaren 9tik 13ra egingen dira

Egun nagusian herri afaria izanen da akordioilariet alaitua

Otzilaria 9
Berpera Eguna
 20:00etan Su-ziria beste hasiera emateko. Ondotik herriko musikariak karrikatan barna.
 21:30etan Baztan-zopak Etxezuri eta Indakoa ostatueta. 00:30tik aintzin Dantzaldia "EUROPA" taldearekin.
 6:00etan Zinger-jatea

Larumbata 10
San Lorenzo Eguna
 10:00etan Argi-soinuak.
 12:00etan Meza-nagusia. Ondotik dantza emanaldia eta hamaiketakoak.
 20:30etan Dantzaldia EUROPA taldearekin.
 22:00etan Herri afaria akordioilariet alaiturik.
 00:30etan Gaspasa "EUROPA" taldearekin.
 6:00etan Gosaria.

Igandea 11
 10:00etan Argi-soinuak.
 10:30etan Meza-saindua.
 12:00etan Mus txapelketa Etxezuri ostatuan.
 14:00etan Bazka-



ARGAZKIA: PABLO MENDOZA/UTXA

Akordeoa, patxarana eta umore pixko bat aski da bazkalondo eder bat pasatzeko. Hortaz aski ongi dakite zigatarrek ere.

rie Tellarin. 18:30etan Baztango andre dantzarien emanaldia.
 20:30etan Dantzaldia "BASAJAUN" taldearekin.
 22:00etan Tortilajatea frontoian.
 00:00etan Dantzaldia "BASAJAUN" taldearekin.
 6:00etan Ziztor-jatea.

Astelehena 12
Haur eta Jukilatuen Eguna

11:00etan Nesken arteko pala txapelketa.
 12:00etan Mutilen arteko pala txapelketa.
 13:00etan Haurren bazkaria elkartean.
 14:00etan Jubiletuen bazkaria.
 14:30etan Gazteen bazkaria.
 16:00etan Poteo sorpresa herriko "ebxetan" barna.
 1:00etan Haurjokoak. Arratsaldez eta

gauetz Dantzaldia "BASAJAUN" taldekoekin.
 6:00etan Gasna jatea.

Asteartea 13
Zikiro Eguna
 9:00etan Gosaria.
 11:00etan Nesken arteko pala txapelketaren finala.
 12:00etan Mutilen arteko pala txapelketaren finala.
 13:00etan Mus txapel-

ketaren finala.
 15:00etan Zikiro-jatea. Ondotik kantu eta dantza.
 19:00etan Herri-kirol saioa. Ezkonduak ezkongabeen kontra.
 20:30etan Dantzaldia JOXE ANGEL eta CRISTIANekin.
 22:00etan Zikiro-afarie.
 00:00etan Dantzaldia JOXE ANGEL eta CRISTIANekin.
 4:30etan Gaixoa-ni bes-

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 (BURUTA)

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313
 ELIZONDO

JATETXEA
 ☎ 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

Galarza

MENDIALDE Jatetxea

AMAIUR • ☎ 948453060

SOULE

Hileta artea

☎ 948 453444-629 659583
 ARIZKUN

BAZTAN

Xorroxin Irratia omendu du aurten Baztandarren Biltzarrak

Azpilkuetako orgak eraman zuen lehen saria

Rakel GOÑI

Eguraldia lagun, mi-laka lagun bildu zen Elizondon, 36. Baztandarren Biltzarra ospatze-ko. Gan den urtean herri guzietako orga apailatuak agertu ziren. Aurten Almandozkoek huts egin dute, baina, halere, inoiz baino karroza gehiago agertu dira. Izan ere, Elizondoko koadri-la ezberdinek prestatutako lauak eta presoan aldekoa kontuan hartuta, hemezortzi orga karrikaratu ziren uztailearen 21ean. Hauen artean, Azpilkuetakoak eraman zuen lehen saria, Amaiurkoak bigarrena eta Berroetakoak hirugarrena. Orga gehienek garai bateko bizimoduari buruzko azalpenak eskaitzen zituzten: arto xuritzea eta Errosario ototza Azpilkuetan, Donejakue bideak utzitako arrastoak Amaiurren edo 1793ko gerraren komeriak Berroetan.

Baztandarren Biltzarra elkarrean omenaldia eskaini nahi izan zion



Xorroxin Irratiari, «hainbarte urtez gure belarriak goxatzen egindako lanarengatik». Honela, Xorroxineko lan-kideek eraman zituzten ikurriña, Baztan eta Nafarroako ikurrak. Gero, oroigarria ere eskuratu zuten.

Desfilearen ondotik, 1.600 lagun bildu ziren Merkatuzelaiako bazkarian. Bazkal ondoren, musika eta bertsoak izan ziren leku berean.



Arizkungo Tturri-xarra eta Posada moldatu dituzte berriki. Moldaketa aitzinetik ateratako argazkietan ageri denez, bazuten beharra!

ARGAZKIAR: RAKEL GOÑI

FLASH

Baztango Dantzariak Letonian

Baztango Dantzariak «nekaturik baina konfent» itzuli dira Letonian hamar eguneko itzulia egin ondotik. Ekainaren 29an abiatu ziren eta Alojan hartu zuten ostatu. Egunero, Riga inguruko herrietan emanaldiak eskaini zituzten eta arras harrera ona izan zuten. Letoniako jendea «pobrea baina arras eskuzabala» dela azpimarratu dute dantzariak.

Margo tailerra Apezetxea eta Sobrinorekin

Abuztuaren 2an hasiko da bertze urte batez, Arizkunenea Kultur Etxeak antolatutako margo tailerra. Azken urteetan bezala, Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrino margolariak emanen dituzte klaseak. Lehendik pintura ezagupenak dituen 16 urtez goiko jendea izendua dago ikastaroa eta gehienez 18 lagun ariko dira. Ortziral goizeko 9:30etan hasiko dira lanean eta klaseak astelehen, asteazken eta ortziral goizetan emanen dituzte, 9:30etatik 12:30etara, abuztuaren 30a bitarte. Izen ematea 60 uro gostatuko da.



**BAZTAN
FUNERARIA**

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

**HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK**

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• ☎ 948 580373 • 608 776176



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km + Tñoa: 45 23 74 - IRURITA

SARA

40. Kontrabandisten Lasterketa agorrilaren 25ean kurrituko da

Inguramenaren kalitateari saria eman diote Sarari

Aña Mari eta Fred

Heldu den agorrilaren 25ean, XL. kontrabandisten Lasterketa kurrituko da. Aurten ere hemezortzi herritako korrikalariek parte hartuko dute, herri bakoitzetik bi lasterkari gonbidaturik izanez. Lasterketa hau 1961ean lehenbiziko aldiko antolatuta zen eta 1965 eta 1978 urteetan ezik, urtero egin da.

Azkeneko bi urteetan Ramuntxo Lamothe saratarra nagusitu da, gazte hunek joan den urtean Koxe Oronozek 1988. urtean egindako errekorra (40'26") hobetu zuen, ibilbide guziaz 40 minutu eta 2 segundutan eginez.

Agian berrogeigarren edizio hunentzat bertze errekorra ikusteko mentura izanen dugu. Beraz, hitzordua finkatua da agorrilaren 25ean, lasterketa arratsaldeko 5etan abiatuko da. Beti bezala, Turismo Bulegoak antolatua ere egun osoan azoka izanen da errebotean.

Ikasturtea Saratik kanpo

Heldu den ikasturteari begira, Herriko Etxeak jakinarazten du Sa-



Agorrilaren 25ean berrogeigarren aldian beteko du Kontrabandisten Lasterketak. Gan den urtean Ramuntxo Lamothe saratarra marka berria ezarri zuen. Aurten, berrogoi minutatik behera egingen ote du ibilaldia?

ratik kanpoko eskoletarat autobusez joanen diren haurren burasoek txostenak lehenbaitlehen hartu behar dituztela Herriko Etxean. Paper horien betetzea baitzepadakoa da autobusa baliatu ahal izateko. Beraz erna...

Inguramenaren kalitateari saria

Uztailaren 30ean departamenduko ordezkarien presentzian egin zen ekitaldi ofiziale batean, Sarari sari bere-

zia eman zaio bere inguramenaren kalitateari esker. Oraingoz, hiru dira ipar Euskal Herrian sari hori eskuratu duten herriak: Senpere, Kanbo eta Donapaleu. Horren kariatzen, zintzur bustitzea eta bokadoa eskaini zaie gomiatuak diren herriko gune turistikoetako eta aterpetetako arduraduneri.

Berriemaileen agurra

Udako garaiarekin batera, Sarako TTPI-TTA-

pako berrikerari ere atsedenaldi bat hartuko dugu. Baina guretzat oporrak bertzeentzat baino luzeagoak izanen dira, heldu den sartzetik goiti berri-emaile berri bati lekukoa emanen baitiogu. Alabainan, buruilatik goiti Xan Harriague izanen da gure herriko berriak aldizkari honi helaraziko dituen. Milesker hiru urte eta erdiz manera batez edo bertze lagundu gaituzuen guzietan, eta zorte on hiri Xan!

FLASH

Elkarteen ekitaldia andana udarako

Hilabete hontan udatarren egonaldia baliatuz herriko elkarte batzuk ekitaldi andana antolatzen dituzte.

Errugbikoek besta nagusia larunbatean, agorrilaren 3an ospatuko dute egun osoan. Gero, hiru asteartez, 6an, 13an eta 20an arratsko 21:30etan indar joako antolatuko dituzte.

Zazpiak Bat-eko dantzariak 14an eta 28an emanaldiak eskainiko dituzte.

Urtxintzak eskubalo elkarteak bi kantu saio prestatu ditu elizan, lehena 16an Estudiantina taldearekin, bertzea 27an Donibane Lohitzuneko Goraki koralararekin.

Pilotariak ere hitzordu frango dituzte, astelehenero xistera partidak eta agorrilaren 17an, larunbatarekin, pilotaren besta ospatuko dute.

Faxismoaren kontrako mendi ibilaldia

Segi gazte taldeak faxismoaren kontrako mendi ibilaldia antolatu du Azkain eta Sara artean, agorrilaren 24 eta 25ean. Taldearen helburua «Euskal Herria nazioa bat dela erakustea da». Horretarako, Frantzia zioten bide-seinaleak ezabatu eta Lapurdi jarri dute. Bertze kartel batzuetan «Nazio bat gara, Euskal Herria» jarri dute.

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESKA**

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

HERRIKO ETXEO EDANTECIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

AZKAIN



Errugbi eskolako gaztetxoak Lizarra aldean izan dira, bertze gisako kirolak praktikatzen.

Marc Berasategik Munduko pilota xapelketan parte hartuko du

Errugbi eskolako gaztetxoak Lizarran izan dira

Ihintza, Angela eta Eneko

Munduko pilota xapelketa aboztuaren azken bi asteetan iraganen da. Marc Berasategi azkaindar pilotari bakarria da parte hartuko duena. Frantses selekzioarentzat arituko da

trinketean binazkako lehiaketan. Azkaingo bestak finitu orduko irurlean izan beharko du irailaren 1a arte. Duela lau urte Mexikok irabazi zuen titulua. Aurten Markek urrezko dominarekin etorri nahi luke

gibelat, jakinez Mexiko, Kuba eta Espainiako selekzioak izanen direla aurkari zailenak.

Errugbi eskola Nafarroan

Gan den urtean bezala errubi eskolako



Marc Berasategi Frantziako selekzioarekin parte hartuko du Munduko pilota xapelketan, trinketean binazkako lehiaketan.

gaztetxoak Lizarra hiriko inguruetan ibili dira, Nafarroan. 6-13 urteko 39 haur ziren Sarakoe-kin batera eta 8 heldu. Kanoe kaiak, eskalada eta ponting bezalako kirolak praktikatu dituzte. Iduzki kolpe batzuekin itzuli dira bainan denak pozik.

Herriko bestak agorrilaren 15etik 18ra

Agorrilaren 15etik

18ra iraganen dira herriko bestak. Hurrengo ttipi-ttaparekin izanen duzue informazio gehiago baina zorbait kontu aitzinatzen ahal dira. Larunbatean karron desfilea eta arratsen kontzertua eskainiko dute Ken-7, Mahamudra eta Eztanda taldeek. Igandean, birazkatze eguna Lesakarekin ospatuko da eta bi herrien arteko pilota desafioa jokatuko da.

ZOANSA

SEAT • AUDI • VW

SALMENTA
MARKA GUZIEKON KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

VENTA Y SERVICIO RESTAURANTE

300 m² perfume markak, esagunenekin
Usain-oiak, kosmetikoa...

☎ (0034) 948 599 400 • EGUNERO IREKIA



EZKONTZAK

Edume Iparragirre Altzugarai eta Iñaki Alustiza Nabarro, Arantza eta Ordizikoa, uztailaren 6an.
 Luis Andueza Oskoz eta Pakita Míndegia Mutuberria, Doneztebe eta Ezkurra-koa, ekainaren 22an.
 Ander Liaño Desola eta Marta Lopez Cañas, Iruñekoak Almandozen, ekainaren 29an.
 Xabier Iparragirre Miura eta Amaia Meoki Plaza, Elizondo eta Ormaitegikoa, uztailaren 6an.
 Francisco Javier Santesteban Loiarde eta María Jesús Goizueta Apeztegia, Zubietako eta Iturengoa, uztailaren 13an.
 Jose María Gil Angulo eta Miren Josune Oiarbide Seco, Donostia eta Madrilgoa, Beran, uztailaren 13an.



SORTZEAK

Garikoitz Txoperena Saldias, Igantzi-koa, uztailaren 4an.
 Gorka Larretxea Olaskoaga, Arantzakoa, uztailaren 12an.
 Lander Mitxelena Bakero, Lesakakoa, ekainaren 29an.
 Xabier Igarzabal Gallego, Lesakakoa, uztailaren 10ean.
 Nahia Sanchez Arakues, Lesakakoa, uztailaren 13an.
 Nalara Mortalena Mariezkurrena, Elizondokoa, uztailaren 6an.
 Nerea Sarratea Etxeberria, Almandoz-koa, uztailaren 6an.
 Maika Lekuona Olaizola, Zugarramur-dikoa, ekainaren 24koa.
 Urko Telletxea Etxandi, Berakoa, uztailaren 9an.



HERIOTZAK

María Asunción Maritxalar Altzugarai, Lesakakoa, uztailaren 15ean, 66 urte.
 Emmanuel Azaret, Sarakoa, uztailaren 9an, 18 urte.
 Laure Hulcy, Sarakoa, uztailaren 12an, 94 urte.
 Manuela Mutuberria Maitikorena, Iturengoa, ekainaren 29an, 83 urte.
 Celestina Gaztañaga Baralbar, Elizondon, uztailaren 11n, 91 urte.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
 MALDAERREKA, S.L.

FUNERARIA ZERBITZUAK
 DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
 24 orduko zerbitzua beilatokian
 eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
 ☎ 900 704704

Unai ZELAIETA MARTINEZ
 II. urteurrena (Bera, 2000-08-08)

Gogorra da bai, hutsuna etsai
 Baina gogoan beti ta nunañi.
 Oroitzapenak ditugu lagun
 ta ez ditugu antzi nahi (b)
 Bihotza dugu malkoz blai,
 baina hala ere lasai,
 itzaropenez ere bai.
 Gu ere noizpait zure ondora
 joanen gara ta egon zai.
 Horregatikan adiorik ez
 gero arte baizik Unai (b).

Senitartekoak eta lagunak, Beran 2002ko abuztuan.

Eskelak eta urtemugak
 ttipi-ttapan
948 631188

Carlos Garaikoetxea Etxenike
 abokatua
Aseguru orokorrak

☎ 948581468 • 948580433
 Frantziarako etorb. 12 •
 Ameztialde 3B • ELBETE

DATUAK...

uztuaren lehen eginen ditu arte Xanti Uterga, Doneztebeko erremontelari profesional berriak. Gaur horrian dagoen urtearen profesionala da.

uztailaren 7an, San Ferminetan, egin zuen debuta bertako Euskal Jai Borrin. 1997. urteko leitzarrarekin bikote eginez, 33 eta 40 gutxiago galdu zuen Astibia eta Leizarraren aurka, eta Juaristiren aurka.

1997. urtean, Mailako Zikloa egiten hasi zen. 1998. urtean, iruñean, oihangintza egiten hasi zen. Posible den bitartean, 1998. urtean, kirola eta ikasketak uztartu nahi ditu.



AITOR AROTZENA

Xanti UTERGA *Doneztebeko erremontelaria*

«Oraindik ez dut konfidantzarik, baina aitzinean arriskatzea gustatzen zait»

AITOR AROTZENA

Duela hiru-lau urte hasi zen erremonterean probatzen Xanti Uterga Doneztebeko gaztea, Iñaki Lizasok zuzentzen duen Doneztebeko eskolan. Han bi urte pasatu eta Huarteko eskolara joan zen, «han fuerteago aritzen gara» dio. Ikasle ona izanen da nonbait, 17 urte bertzerik ez dituela dagoeneko debuta egin baitu profesionala: «Nahiko ustekabea harrapatu nau. Debutaren egunean urduria xamar nengoen eta ez nuen gauza handirik egin». Geroztik, uztaillaren 13an jokatu zuen, oraingoan Lander Erkizia herritarrarekin bikote eginez, eta lehendabiziko garaipena eskuratu zuen, 28 tantutan utzi baitzituzten Juaristi eta Gaztelu. «Bigarren partida honetan lasaiago atera nintzen... korredoreak pixko bat somatzen ditugu, baina nik ez diet kasu sobera egiten» adierazi digu Xantik.

Bere burua aurrelari bizitzat du Utergak. «Aitzinean jokaldia egitea gustatzen zait eta arriskatzen dut,

Horrian bi fenomeno ditugu: Lizasoren aritzeko modua espektakularra da eta Koteteri buruz, zer erran, dena gustatzen zait.

bai. Oraindik profesionala soberra ez, baina konfidantzaz hartzen dutenean berriz ere hasiko naiz».

«ESTELARRETAN JOKAZTERA

AILEGATZEA GUSTATUKO LITZAI DAKE»

Hasi berria denez, oraindik arlo auzintan hobetu behar du doneztebarrak. «Adibidez, kolpean irabazi behar dut, oraindik gaztea naiz eta indarra ez dut sobera». Ez da erremontere Xantik praktikatu duen kirol bakarra. Joan den urtera arte futboleko aritzen zen Lesakako Beti Gazten. «Bietarako afizioa banuen, baina bietako bat utzi beharra nuen eta erremontera jo dut. Futboleko ari-

tzeko ere gogoekin gelditu naiz, posible balitz bietan ariko nintzateke». Laxoan, ordea, hagitz gutti aritu da. «Aurtengo txapelketan ari naiz pixko bat Doneztebe D taldearekin, baina orain arte deus ere ez. Laxoa baino lehenago erremonterean ikasi dut. Normalean alderantziz izaten da».

Gaur egun profesionala aritzen den seigarren doneztebarrak da Xanti eta etorkizunean gehiago ere izanen direla uste du. «Patxi Olazar eta bertze sailditar bat ari dira Huarteko eskolan eta hagitz ongi... noiz-nahi sailtoa ematen ahal dute. Lehendik inguru honetan hainbat profesional izateak eta eskola Donezteben bertan izateak badu zerikusia horretan, noski». Gustoko erremontelariak topatzeko ez du urrun joan beharrik: «Lizasoren aritzeko modua espektakularra da eta Koteteri, baina, dena gustatzen zait». Dena den, ez du zapelekin amesten oraindik. «Lasai joan nahi dut, ea estelarrak aritzera ailegatzen naizen».

LAXOA

Baztan-Errekako txapelketaren finala igandean jokatuko da Oitzen

Iruritako talde bat eta azken urteetako txapeldunetako bat ariko dira

Aitor AROTZENA

Baztan-Errekako la-xoa txapelketa azken txanpan sartua da. Le-rru hauek idazterako or-duan finalerdiak joka-tzekoak ziren, baina par-tida ikusgarriak izanen zirela ez da dudarik. Fi-nalardi batean, azken hamar eta gehiago ur-tetan txapeldun izan di-ren bi taldeak aritzeko-ak ziren, Doneztebe eta Arraioz. Gaur egungo txapelduna den Arraioz-ek ez zuen lehen fase ona egin eta hirugarren akitu zuen. Aurten Do-neztebe B izenarekin ari den talde historikoa (Pa-txiku Ganboa, Peio Iri-barren, Luismi Apezet-xea eta Javier Mariez-kurrena) izan zen, hain zuzen, multzoko buru. Arraiozek iaz finalista izan zen Doneztebe A uste baino errexago kanporatu du final laur-denetan. Orain, ikusi



ARTIBAKOIA

Orain dela hiru urteko finaleko protagonistak finalerdietan aritu dira aurten elkarren kontra, finalerako txartelaren bila. Bi laukoteetako batek, Iruritako talde bat izanen du esperoan Oitzko plazan.

egin behar Doneztebe B talde indartsuarekin gauza bera egiterik ba-duen.

Bi gauza badira se-

guruak: bata, igande eguerdi honetan, abuz-tuaren 4an, jokatuko de-la finala Oitzko plazan; bertzea, Iruritako talde

bat izanen dela, aspal-diko partez, final horre-tan, A eta B taldeek jo-katu baitute bertze fi-nalardia.

FLASH



Igerilari bikainak

Santurtzin jokatutako Euskadiko igeriketa txapelketan Maitane Geroño aresoarrak ehun metro libre eta 200 me-tro estiloetan urrezko domina lortu zuen. Bertzalde, Irungo Arta-leku taldean ari den An-der Rodriguez Korta be-ratarrak, 100 metro li-brean Espainiako txapelketan parte hartze-ko minima lortu zuen Irungo San Martzial Sa-rian (58'26). Bartzelo-nan uztailaren 31n ari-tzekoa zen.



PILOTA

Aimar Olaizola eta Koteto Ezkurra txapeldun aurtengo Sanferminetako pilota eta erremonte txapelketetan

Aimar Olaizola goi-zuetarra eta Koteto Ez-kurra doneztebarrak izan dira aurtengo Sanfer-minetako pilota txapel-keten protagonistak. Goizuetarrak eskuz eta doneztebarrak erre-montez txapelketa ede-rra egin dute (finaler-dietako partidu bikainak egin zituzten biek) eta biek txapeldun suerta-

tu dira. Eskuz, Aimar Olaizolak Patxi Ruiz izan du lagun eta finalean 22-18 irabazi zieten Fer-nando eta Mikel Goñiri. Oronoztarra sasoi one-an dabil azken aldi-an, baina finalean ez zen konforme gelditu atera ziren pilotekin. Egia erran, finala ez zen ikus-garria suertatu, baina azkenean, udako lehen

txapel garrantzitsua Olaizola II eta Ruizen buruetara joan zen.

Erremontean, Ezku-rrak eta Txikurik iraba-zi dute txapela. Berezi-ki gogoangarria izan zen Ezkurak finalerdietan jokatutako partida. 21 tantutan utzi zituen Al-tuna I eta Lizaso. Joka-lari onenaren saria ere Kotetok jaso zuen.



ARTIBAKOIA. GARA

Aimar Olaizolak eta Patxi Ruizek txapelketa bi-kaina egin zuten Sanferminetan. Finalean ez zi-ren hain fin ibili, baina txapela irabazi zuten.

AGENDA

egunez
egun

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Uztailaren 25etik irailaren 1era Jesus Montes margolariaren lanak ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean. Uztailaren 23tik irailaren 1era Tomas Sobrino margolariaren lanak ikusgai Jaime Urutia karrakako 23. zenbakian, 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 21:00etara.

BERTZ

Uztailaren 24tik irailaren 1era Xabier Santxotena eskulturgilearen lanak ikusgai jauregiko erakusketa aretoan.

LESABA

Uztailaren 20tik irailaren 1era Juan Carlos Pikabea margolariaren lanak ikusgai Otsango auzoko Irisarrin.

SENPERE

Agorriaren 10a arte aintzirako Didier Pattedole margolariaren obrak ikusten ahal dira Elkartebean.

LEITZA

Abuztuaren 6tik 18ra Maria Uriarteren «Landare eta lore lehorrak», egunero 19:00etatik 20:30etara. Abuztuaren 19tik irailaren 1era Koldo Fagoagaren *poupumi* (marrazkiak...)

DOÑEZTETE

Uztailaren 22tik abuztuaren 2ra Cesareo Soule hamr eskultorearen lanak ikusgai Alhondigan, astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00ak arte.

ABIZKIN

Xabier Soubelet margolariaren lanak ikusgai uztailaren 6tik aitzinera Arizkungo Xubiltz Kultur Elkartearen. Uztaila eta agorriaren 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Iraila eta urrian aste hondarretan.

TELEBISTAKO TXOKOA



UDA-GIROAN PROGRAMAREN BARNE

Ikusentzuleek parte hartzeko aukera «Duda-Muda» saioan

Uda honetan hasi dugun UDA GIROAN magazinean Joseba Olgarai etxalartarrak hainbat kontu ekartzen digu egunero. Herriz Herriko erreportaiez gain, egun bakoitzak saio bat aurkezten digu, eta ttipi-ttapa Telebistan ikuslegoaren partehartzea bilatu nahi dugunez, Ainara Mindegia eta Ainhoa Arburuaren «Duda-Muda» saioan aukera hori luzatu dugu. Horrela, aste bakoitzean lantzen duten gaiaren inguruko edozein duda edo zalantza izanez gero, Ainhoari galdetzeko aukera izanen duzue ikusentzule guztiak: sexualitatea, droga, depresioa, me-

nopausia, anorexia, bulimia eta jorratuko dituzten bertze edozein gairen inguruko galderaren bat baldin baduzue, Ainhoak gustora hartuko ditu guziak eta ahalik eta hoberen erantzuten saiatuko da. Hori egiteko hiru aukera dituzue: alde batetik zuen eskura jarri dugu telefono zenbakia: 948631188; eskutitza idatz dezakezue honako helbidera: *ttipi-ttapa; Herriko Etxeko Plaza, 1; 31780 Bera*. Edo e-mail bat bidal dezakezue honako helbidera: *ttipi-ttapa@topagunea.com*. Galderak izenik eman gabe egiten ahal dira, beraz ez duzue aitzakirik dudatan gelditzeko.

DISKAK



«Hi bizi hadi»

Urgabe

ELKAR

Dantzatzeko erabat egokia den musika eskaintzen digu Urgabe talde bizkaitarrak bere bigarren lan honetan ere. «Hi bizi hadi» CDa erabat baikorra eta sustraletik alaiak dugu. Jose Agustin Barandiaranen trikitiak eta ahotsak, Ainara Arrizabalagaren panderoak, gitarra eta ahotsak, Mikel Romeroren gitarra guztiak, Kike Moraren baxuak eta Kepa Calvoren bateriak osatua. Honako hamabi kanta hauek eskaintzen dizkigute: «Lamie», diskoarizena ematen dion «Hi bizi hadi», «Goizeko bostak», «Oihuka», «Musikari baten aitortzak», «Marigorri», «Ura», «Bilatu barrik», «Andrakaseko errementeria», «Arrosa beltza», «Lana» eta «Arlatin». Beti bezala, bestak gainean ditugula profutatuz, erromeria giroa lagun bizitzako momentu eder eta ez hain onetaz gozatu ahal izateko.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Uztailaren 22tik 29rako prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea (19 kilo): 23,19 €

Zerri gizena (95-100): 0,17 €

Zerramak: 0,55 € kiloa, bizirik.



BENIKIA

Aretze gizenak: Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,22

1.koa 3,10

2.koa 2,98

Uruzak: Pta/kg. Kanal

Extra 3,28

1.koa 3,16

2.koa 3,04

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tsikiak

(15 egun ingurukoak):

Mestizoak: uruzak 245 € eta idixkoak 235 €

Nabarrak: uruzak

208,36 € eta idixkoak 182,32 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberiak: 3,01/3,07

Zaki-behorak: 1,92/1,98

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,86/6,06

8-10 kilokoak: 4,81/5,21

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK



Kontuz mikrouhin-labearekin

Berotzen den ontziaren eta jakiaren arabera arrisku desberdinak daude mikrouhin (microondas) labearekin. Gaur egun, mikrouhin-labea erabiltzea gauza arrunta da, hortzak garbitzea edo telebista ikustea bezain arrunta.

Badirudi horrelako gauza batek ez duela inolako arriskurik, baina egia erran, ez da hala, eta kontuz ibili behar da, instanteko kafea edo tea hartunahi dugunean, ura berotzeko tresna hau erabili nahi badugu.

Ur beroa kikara edo edalontzi batean kontuz erabili behar da. Batzuetan, ura, itxuraz irakiten egon ez arren, gai-

nezka egin eta ontzia duen pertsona erre izan du. Fenomeno horri super-berokuntza deitzen zaio, eta ura berotzen ari den edozein unetan gertatzen ahal da, bereziki erabiltzen ari den ontzia berria bada.

Baina zer gertatzen da? Bada, burbuilak osatzen baino aunitzez lehenago berotzen da ura. Arrisku handiagoa da kikara berria bada, urratu edo zirrikiturik ez badu; izan ere, horrelako edalontzietan burbuilak osatzen ahal dira, eta jadanik irakiteko behar den denbora igarota ere, hau da, nolabait errateko, irakiten ari da eta irakiten segitzen du eten-

gabe. Ura trinkotua gelditzen da, eta airearekin kontaktua izatean indar handiz ateratzen da, pilatutako energiagatik.

Antzeko zerbait gertatzen da edari karbonatuekin. Irekitzerakoan botila ixia astintzen bada, edukia indar handiz ateratzen da pilatutako energiagatik.

Hori ez gertatzeko, ura irakiteko orduan, komeni da zerbait paratzea uretan, zotz bat edo te poltsatxo bat. Ura soilik berotu behar izanez gero, hobe da sukalde tradizionalen egitea.

Euskaldunon Kontsumo Aldizkaritik bildua.

LIBURUAK



Olga

Mª Dolores Salat i Torras

SUSA

Mari Jesus Iartzak euskaratu duen liburu honetako protagonista nagusia, drogaren atzaparretan erori eta menpekotasun horri aurre egin nahian dabilen neska gaztea. Aske izan nahi du Olgak, Maria Dolores Salat i Torrasek idatzitako idazlan honen protagonista nagusiak. Aske izan nahi du, baina gibelera begira, ez baitu geroko ametsik egiten, bizitzak ihes egiten diola jabetzen delako. Bizitzeko oreka, laguna, aurkitu dituela di-

rudienean, ez du bizi itxaropenik ikusten. Barneajota duela somatzen du, eritasuna erraietaraino sartua duela. «Olga»ren egilea, drogaren munduak dauzkan miseriak, eta bere kontakizuneko neskek bezala, mundu horren barranean nor izateagatik ahaleginak eta bi egin dituzten aunitz eza-gutu dituen pertsona da, Vidal i Barraquer Fundazioan Psikologian diplomatua eta 35 urtez osasun laguntzaile tekniko lanean aritu baita.

BESTAK

NEBA

Abuztuaren 2tik 6ra San Esteban bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

LEITZA

Abuztuaren 10etik 15era San Tiburtzio bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

SUNBILLA

Uztailaren 24tik 28ra Abuztuaren 10etik 15era San Tiburtzio bestak. Xehetasunak 16-17 orrietan.

GAZTELU

Abuztuaren 2tik 5era Sanito Domingo bestak. Xehetasunak 15. orrian.

BEITZA-LABAIEN

Abuztuaren 2tik 6ra bestak. Xehetasunak 18. orrian.

ZIGA

Abuztuaren 9tik 13ra San Lorenzo bestak. Xehetasunak 19. orrian.

KANTALDIK

SARA

Agorrilaren 16an Estudiantina taldea. Agorrilaren 27an Donibane Lohitzuneko Goraki korala, Urbintxak elkarteak antolatua.

ELIZONDO

Irailaren 14an Los Tigres del Norte Xorroxin iratiak antolatua.

ERAKUSKETAK

NEBA

Abuztuaren 11 arte Natalia Chebanenko margolari ukrainiarren «Ikonoak eta Euskal Herriko Irudiak» erakusketa zabalik Kultur Etxean, ortziraletik igandera 18:00etatik 21:00etara. Abuztuaren 2tik 29ra Nicolas Ardanaz argazkilariren lanak Kultur Etxean.

00-34 948 63 11 88

Zure hobetari iragarria jartzeko 6.30 € ordaintu behar da.
Ttipi-ttapa iragarria erabiltzeko da (Irati izanaz) jartze iragarriaren
6.30 € Rural ikuskerako 3000 0080 8.3 4703324809 kontuan hartu eta
susturkaria iragarriaren igorri berru erabiltzeko.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Zure hobetari partikular, profesional eta merkataritza informazio eta zerbitzuen berriz ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratutako diren iragarrien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Ipeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai mobleztatua, garaje, kalerakzio, trastero eta lorategiarekin.
☎ 948 631074 (gauetz).

LESAKA. Pisua bat 67m² eta duplexa 142m² koa edo unifamilarra 194 m²akoa sal-

ADOS

LESAKA. Aterki 1 eta abiatu salgai
BERA. 2. etako pisu eta etxe salgai.
DOBEZTUBI. Etxetan in diren alda pisu salgai
ITURKI. Aterki eta abiatu salgai berriztatzen
Doboztubia
☎ 948 451 841 / 639 494 522 / 607 978 556

ADOS

• Etxeak handi dagoenez, bostak, baserriak, le-eremuak, bajeak eta etxe nahi dira
• Etxeak handi badugu zerbat.
Eskatu informazioa
☎ 948 451 841 / 639 494 522

Baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke.

☎ 639 494 522

gai. ☎ 616 457 275.

LEITZA. Pisua salgai. Ego-
era onean. 90 m². Argitasun
handia. M. Lasarte 7. ☎ 948
610848.

ELIZONDO. Pisua salgai
kalerakzioarekin. Mobleztatu-
a. Jaime Urutia kamikan.
☎ 639 452525.

LEITZA. Pisu eder bat sal-
gai. Amazabalen. Sukalde
eta bainua berri konpon-
duak. Kalerakzioa. ☎ 948
510025.

ARANTZA. Burdingunub-
berrria salgai. ☎ 948 630545.

LESAKA. 90 m²ko pisua
salgai. Sukaldea, komedo-
rea, hiru gela, komunak, ka-
lerakzio elektrikoa. ☎ 948
637267.



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...



LEGASAKO KONTZEJUA CONCEJO DE LEGASA

EHIZA POSTUEN ENKANTEA

• Postuak: 9 postu (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9. zenbakidunak) lleri aldean kokatuak.

• Probetxamenduaren iraupena: 5 urte

• Probetxamenduaren hasierako prezioa: 4.207,08 euro.

• Baldintzak: Enkantean parte hartzeko %5eko fidantza jami behar da.

• 1. enkantea: 2002ko abuztuaren 3ko eguerdiko 12etan.

• 2. enkantea: 2002ko abuztuaren 10eko eguerdiko 12etan, (hutsik gelditzen baldin bada, %10 merkeago)

• 3. enkantea: 2002ko abuztuaren 17ko eguerdiko 12etan, (hutsik gelditzen baldin bada %10 merkeago)

Baldintza plegua interesatuen eskura dago Legasako Kontzejuko bulegoetan.

Legasa. 2002ko uztailaren 10a

Presidentea, Miguel Andresena Etxeberria

ETXEBIZITZAK

103 Errentan emateko

BERA. Aitzate 15, 1.C pi-
sua errentan eman nahi da.
Mobleztatua. ☎ 620 283 920

ETXEBIZITZAK

106 Bertzelakoak

Baztan-Malerreka. Hiru hel-
du eta bi neska tikik base-

ria, borda edo pisua behar
dute. ☎ 678 215826.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan emateko

Intza ostalua errentan eman
nahi da. ☎ 948 580 804 / 606
557 356.

ELIZONDO ostalua eskuz
aldatu gogozko edo erren-

APANDEGA
Cheli
Estetizista

- Aurrerako tekniken erabilera
- Opatuzko tratamenduak
- Aurreratuak
- Opatuzko
- Aurrerako

Zabalza Plaza, 8
20081 BERRIO
Tlf: 948 61 84 90

MENDIAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Audi 4, Peugeot 205 D, Peugeot 106 D,
Renault 19, Terrano 3, Ford Scorpio,
Astra TD, Opel Monterey 5 eta
SUZUKI ETA VITARA ALKORAN

IRURI MOTOR Iruriko enpresa
SUNHILLA
☎ 948 450 333
☎ 450 333 454

Terrano motza, Suzuki Samurai,
Nissan Pick Up, Suzuki
Vitara TD
Terrano 3 eta PickUp, Suzuki eta besteak

tanbaxuan eman. ☎ 948 585
016.

LURRAK/ORUBEAK 112 Salgai

BERA. Lur zati erakigarria
salgai Matzadan. ☎ 948
627542 - 948 631605.

LANA 301 Eskaria

Orduka laneginen luke. Ost-
tatuak, haurrak edo xaha-
rrak zaintzen, garbiketan...
☎ 626 852 907

Frantses eta Ingeles kla-
seak emanen nituzke gaz-
telaniazko klaseentzako. As-
tean ordu batzuk. Hobe ema-
kumezkoa bada. ☎ 948 630
176 (gauetz).

Emakume batek lan eginen
luke garbiketan, adinekoak eta
haurrak zaintzen, sukalde-
laguntzaile... ☎ 626852937.

LANA 302 Eskaintzak

Sukalde laguntzaile be-
har da Iruñeko jatebete bate-
an. ☎ 948 351 822

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
